



Espedientea: 3HI-028/24-P03-A

DONOSTIA
HAPoren aldaketa puntuala Alkolea parkeko (AU "EG.15 egia) eta Martuteneko (AU MA berria, ".09 Martutene") azpiestazioei buruzkoa.

TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN GIPUZKOAKO HIRIGINTZA PLAN-GINTZA ATALEKO IDAZKARIAK

ZIURTATZEN DUT Gipuzkoako Hirigintza Plangintzaren Atalak uztailearen 18an izandako 2/2024 bilkuran, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituztela, aho batez, kideen gehiengo osoa eratzen zuten bertaratutakoek:

I.- Aldeko txostena ematea Donostiako, Alkolea parkeko (AU "EG.15 egia) eta Martuteneko (AU MA berria, ".09 Martutene") azpiestazioei buruzko Plan Orokorraren aldaketaren espedien-teari dagokionez, ondoren aipatzen den araudi-ari jarraiki lotesleak diren alderdien gainean: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko, ekainaren 30eko, 2/2006 Legea, Euskal Herriko Lurralde-aren Antolamendurako, maiatzaren 31eko, 4/1990 Legea eta Autonomia Erkidegoko Era-kunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundearen arteko Harremanen gaineko Legea aldatzen duen, uztailearen 16ko, ~~2006ko~~ **2024ko** Legea onartuz, **Bestalde, Legea onartuz** jotzen da zuzentzea hirigintzako araudiko AU "MA09. Martuteneko Transformazio Azpiestazioa" Arau Partikularren III.1.1.A.b atalean jasotako gehieneko sestrarpeko solairu kopuruaren erreferentzia.

II- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen Lehenengo Xedapen Gehigarriaren 3. puntuan Batzorde honi buruz xedatutakoaren ondorioetarako, txosten honetan jasotako baldintzak sartu ondoren, espedientea behin betiko onartu ahal izango da, Batzorde honek berriro txostena egin beharrik gabe.

III. Espediente hau behin betiko onartzeko, eskumena duen organoari honako hauek egindako txostenak bidaltzea: Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza Zerbitzuak (I. eranskina) eta URA-Uraren Euskal Agentziak (II. eranskina), ziurtagiri honi erantsita doaz."

Expediente: 3HI-028/24-P03-A

SAN SEBASTIÁN
Modificación puntual del PGOU referida a las subestaciones de transformación del parque de Alkolea (AU "EG.15 egia") y Martutene (nuevo AU MA.09 Martutene).

TOMÁS ORALLO QUIROGA, SECRETARIO DE LA SECCIÓN DE PLANEAMIENTO URBANÍSTICO DE GIPUZKOA DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO

CERTIFICO que en la Sesión 2/2024 de la Sección de Planeamiento Urbanístico de Gipuzkoa celebrada el día 18 de julio se adoptó, entre otros, por unanimidad de los asistentes que conformaban la mayoría absoluta de sus miembros, los siguientes acuerdos:

I.- Informar favorablemente el expediente de Modificación puntual del PGOU referida a las subestaciones de transformación del parque de Alkolea (AU "EG.15 egia") y Martutene (nuevo AU MA.09 Martutene), en relación con los aspectos cuyo carácter de informe es vinculante de acuerdo con lo señalado en la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, en la Ley 4/1990 de Ordenación del Territorio del País Vasco; y en la Ley 5/1993 de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de los Territorios Históricos.

Por otra parte, se considera necesario que se corrija la referencia del número de plantas bajo rasante máximo contenido en el apartado III.1.1.A.b de la Norma Particular del AU "MA09. Subestación de Transformación de Martutene" de la normativa urbanística.

II- A los efectos de lo dispuesto en el punto 3 de la Disposición Adicional Primera de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo relativa a esta Comisión, una vez introducidas las condiciones contenidas en el presente informe el expediente podrá ser aprobado definitivamente sin necesidad de ser sometido nuevamente a informe de esta Comisión.

III. Remitir al órgano competente para la aprobación definitiva del expediente los informes emitidos por el servicio de Agricultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa (Anexo I) y por URA-Agencia Vasca del Agua (Anexo II), que se acompañan a la presente certificación."





Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, bilkuraren akta onetsi baino lehen, Vitoria-Gasteizen.

Y para que así conste, expido y firmo, con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz.



Sinadura elektronikoa:

Firmado electrónicamente por:

Tomás Orallo Quiroga

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN IDAZKARIA

SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO

PROPUESTA DE INFORME DE LA DIRECCIÓN DE PLANIFICACIÓN Y OBRAS DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA-URA RELATIVO A LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA REFERIDA A LAS SUBESTACIONES DE TRANSFORMACIÓN DEL PARQUE DE ALKOLEA (AU “EG.15 MARTÍN SANTOS (EGIA)” Y MARTUTENE (NUEVO AU “MA.09 MARTUTENE”), EN DONOSTIA – SAN SEBASTIÁN (GIPUZKOA).

N/ Ref.: IAU-2024-0200

S.ref.: 3HI-028/24-P03-A

1 INTRODUCCIÓN Y ANTECEDENTES

Con fecha de 14 de junio de 2024, tiene conocimiento esta Agencia Vasca del Agua de la entrada en la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, de la Modificación Puntual del PGOU de Donostia – San Sebastián, referida a las subestaciones de transformación del Parque de Alkolea (AU “EG.14 EGIA”) y Martutene (Nuevo AU “MA.09 MARTUTENE”).

Para su análisis se aporta el expediente administrativo, así como los documentos urbanísticos de aprobación inicial y aprobación provisional, y el documento ambiental estratégico aprobado inicialmente, incluyendo la documentación cartográfica asociada.

Con anterioridad, desde esta Agencia Vasca del Agua se ha procedido a informar la citada modificación puntual de planeamiento en el trámite ambiental, con fecha de 21 de julio de 2022 (ref.: IAU-2022-0188).

2 ÁMBITO Y OBJETO

Se trata de una modificación de planeamiento que afecta a dos ámbitos diferenciados:

- **AU “EG.15 Martín Santos. Egia”:** parcela de Subestación Transformadora del Parque Alcolea en Donostia/San Sebastián, en la que se propone el reajuste de la zonificación pormenorizada, diferenciando en la zona este los usos de distribución eléctrica y residencial. La edificación residencial se encuentra segregada de la subestación en cuanto a uso y titularidad desde el año 1992.



Ilustración 1.- Zonificación pormenorizada propuesta en la parcela AU EG.15.

Boulevard eraikina / Edificio Boulevard
Gamarrako Atea / Portal de Gamarra 1A - 11
01013 Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava)
T: 945 01 17 00 – www.uragentzia.eus





- **MA.09 Subestación de Transformación de Martutene:** subestación ubicada en el Ámbito Natural “UN.03 Lau Haizeta” del suelo no urbanizable. Se pretende clasificarlo como suelo urbanizable dentro de la categoría de sistemas generales de infraestructuras de servicios, creando un nuevo ámbito urbanístico (MA.09 Subestación Transformadora de Martutene).

Se pretende construir una edificación de tipo administrativo en el suelo liberado tras la compactación de la subestación y 1.500 m² de aparcamiento en superficie. La edificación contaría con tres plantas sobre rasante para oficinas y servicios [4.500 m²(t)], y una planta bajo rasante para almacén y aparcamientos [1.500 m²(t)].



Ilustración 2.- Zonificación pormenorizada de la parcela AU MA.09, red hidrográfica y deslinde DPM-T.

Ambos ámbitos se localizan en la Unidad Hidrográfica del Urumea, perteneciente a las denominadas Cuencas Internas del País Vasco de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental. La principal masa de agua cercana se corresponde con el Urumea de Transición, aunque ninguno de los dos ámbitos se dispone dentro de la zona de servidumbre de protección del DPM-T. Además, la parcela EG.15 Martín Santos no se sitúa dentro de la policía de ningún curso de agua cercano.

La parcela MA.09 de la Subestación de Martutene se encuentra atravesada por el arroyo Plazentzi que, a su paso por la subestación, se soterra quedando ya entubado hasta su desembocadura en la ría del Urumea. Aguas arriba de la parcela, entre la subestación eléctrica y la estación de servicio, la citada regata discurre a cielo abierto, aunque se encuentra fuertemente encauzada y sin ningún tipo de vegetación en sus márgenes.

De acuerdo con un análisis realizado in situ por personal de esta Agencia, la citada regata es considerada como DPH con sus correspondientes zonas de servidumbre y policía asociadas, también en su tramo soterrado.



Ilustración 3.- Imágenes del tramo a cielo abierto de la regata aguas arriba de la subestación de Martutene.

Se ve flujo continuo de agua, a pesar de realizar la visita en un periodo de varios días sin precipitaciones.



3 CONSIDERACIONES

3.1 En relación con la protección del DPH y de sus zonas de protección asociadas.

Tal y como se ha descrito en el apartado anterior, bajo el suelo ocupado por la subestación de Martutene discurre soterrado el arroyo Plazentzi, de aproximadamente 0,5 km² de cuenca afluente.

Cabe recordar que el TRLA establece la necesidad de respetar los 5 metros de servidumbre de DPH, también del tramo soterrado, que deberán quedar libres de cualquier elemento de la urbanización.

La propia documentación de la modificación puntual de planeamiento en análisis refleja la posibilidad de que, con la construcción de la planta bajo rasante del edificio propuesto, se afecte al citado arroyo.

En este sentido, y tal y como se recoge en el documento de la modificación puntual, la implantación del edificio se realizará de manera que se minimice la afección al trazado de la escorrentía, y que, en el caso de ser necesario el desvío de su trazado, se atenderá a lo establecido en la normativa vigente¹. También, la modificación puntual establece la necesidad de tomar medidas que eviten la afección de las aguas superficiales aguas abajo de la actuación, concretamente el cauce del Urumea, ubicado a 100 m del ámbito de actuación.

Si bien las medidas anteriormente descritas son valoradas positivamente, desde esta Agencia se estima que, dada la ubicación del citado arroyo, para poder respetar tanto el cauce como su zona de servidumbre, será necesario proceder al desvío de su trazado. En este sentido, dicho desvío requerirá del correspondiente proyecto de encauzamiento específico, que incluirá el correspondiente estudio de alternativas en el que se valore también el descubrimiento total de la regata, siempre en busca de la mejora ambiental del cauce.

Dado la ubicación de las actuaciones previstas en la parcela XX y la disposición del cauce del arroyo Plazentzi, se recuerda que dichas actuaciones deberán contar con la preceptiva autorización de la Agencia Vasca del Agua. Será en la citada autorización donde se establecerán los condicionantes concretos a tener en cuenta en el proyecto del encauzamiento del arroyo Plazentzi.

3.2 En relación con el abastecimiento.

La Subestación de Martutene se encuentra conectada a las redes de abastecimiento municipales, que se prevé que cuenten con las infraestructuras suficientes, en estado y dimensionamiento adecuado, como para abastecer los nuevos requerimientos de recurso de la edificación administrativa propuesta.

¹ Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas, Reglamento del Dominio Público Hidráulico y Plan Hidrológico del Cantábrico Oriental (2022-2027).



En relación con la garantía de recurso, a pesar de que en la documentación no se dispone de una estimación del incremento de demanda hídrica derivada de la construcción de la nueva edificación, a priori se estima que no será relevante y que se podrá dar servicio con los recursos existentes en los sistemas generales.

3.3 En relación con el saneamiento.

Respecto al saneamiento cabe indicar que, tal y como con el abastecimiento, las redes municipales discurren por el interior de la parcela de la Subestación de Martutene, conectando las aguas residuales a la EDAR de Loiola para su tratamiento.

Se estima que las nuevas cargas de saneamiento derivadas de la construcción del nuevo edificio no supondrán un incremento significativo en las cargas que soporta actualmente la red, por lo que se considera que la infraestructura de saneamiento existente es suficiente para dar servicio a las propuestas contenidas en la modificación de planeamiento en análisis.



4 CONCLUSIONES

Teniendo en cuenta las consideraciones anteriormente realizadas, esta Agencia Vasca del Agua-URA propone informar, en el ámbito de sus competencias, de manera **favorable** la “*Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana referida a las subestaciones de transformación del Parque de Alkolea (AU EG.15 Martín Santos – Egia) y Martutene (Nuevo AU MA.09 Martutene) en Donostia – San Sebastián (Gipuzkoa)*”, en su documento aprobado provisionalmente de septiembre de 2023, con la consiguiente condición vinculante:

- Incorporación en el proyecto de encauzamiento del arroyo Plazentzi, necesario para el desvío de su trazado, un análisis de alternativas para que se valore la posibilidad de descubrir la citada regata.

Finalmente, se recuerda, que toda aquella actuación que vaya a llevarse a cabo en las zonas de servidumbre y de policía del DPH, requerirán de la preceptiva autorización de esta Agencia Vasca del Agua. Será en la citada autorización donde se establecerán los condicionantes concretos a tener en cuenta en el proyecto del encauzamiento del arroyo Plazentzi.

4 TXOSTEN-PROPOSAMENA

Aurretik egindako gogoetak kontuan hartuta, URA-Uraren Euskal Agentzia honek, bere eskumenen esparruan, Donostiako (Gipuzkoa) Alkolea Parkearen (HE EG.15 Martín Santos – Egia) eta Martutene Parkearen (HE MA.09 Martutene) transformazio-azpiestazioei buruzko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aldaketa Puntualaren **aldeko** txostena egitea proposatzen du, 2023ko irailean behin-behinean onartutako dokumentuan, eta baldintza lotesle honekin:

- Plazentzi erreka bideratzeko proiektuan, trazadura desbideratzeko beharrezkoa baita, beste aukera batzuk aztertzea, aurkitzeko aukera baloratzeko.

Azkenik, gogorarazten da jabari publiko hidraulikoaren zortasun- eta zaintza-eremuetan egingo den jarduketa orok Uraren Euskal Agentziaren nahitaezko baimena beharko duela.

Vitoria-Gasteiz, a fecha de firma

Este documento ha sido firmado digitalmente por:

Arantza Martínez de Lafuente de Fuentes (*Ebaluazio Arduraduna/Responsable de Evaluación*)

José M^a Sanz de Galdeano Equiza (*Plangintza eta Lanen Zuzendaria/Director de Planificación y Obras*)



NEKAZARITZA SEKTOREAREN GAINEKO ERAGINARI BURUZKO EBALUAZIO TXOSTENA.

GAIA: 3HI-028-24-P03-A DONOSTIAKO HAPOAREN ALDAKETA PUNTUALA ALKOLEA PARKEKO (AU EG.15 EGIA) ETA MARTUTENEN (AU MA BERRIA, ".09 MARTUTENE") AZPIESTAZIOEI BURUZKOA. INGURUMEN- AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN ERAGINA NEKAZARITZA SEKTOREAN.

1.- SARRERA

1.1. Aurrekariak

2024ko ekainaren 14an, Eusko Jaurlaritzako Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, 3HI-028-24-P03-A Donostiako HAPO-aren aldaketa puntuala Alkolea parkeko (AU EG.15 EGIA) eta Martuteneko (AU MA BERRIA, ".09 MARTUTENE") azpiestazioei buruzkoari dagokion dokumentua eta ingurumen azterketa estrategikoa igorri ditu *Landa Garapeneko eta Lurralde Orekako Zerbitzura*.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 97 bis artikuluari jarraituz *Zerbitzuari* nekazaritza sektorearen gaineko eraginari buruzko txostena egin dezan eskatu zaio.

1.2. Araudia

Nekazaritza-abeltzaintza eremuko lurzorutzat jotzen dira oinarri naturaleko eboluzio prozesu luzeen ondorioz edo gizakiek historian zehar nekazaritzarako egokitu izanagatik emankortasun handia dutenak. Lurzoru horiek ondare komun berriztaezin funtsezkoa osatzen dute, ingurumeneko balio, balio sozial eta ekonomiko handiak baititu.

Funtsezkoak dira nekazaritzako sistemarako, ekosistemak eta biodibertsitatea mantentzeko, baita haien lurraldeko antolakuntza eredurako ere. Lurzoru horiek lagundu egiten dute nekazaritzako jarduera mantentzen, lurzoru biziak baitira ikuspuntu biofisikotik, baita sozioekonomikotik ere. Azken finean, ingurumeneko funtzio, funtzio produktibo eta historiko-kultural garrantzitsuak betetzen dituzte; eta lagundu egiten dute nola elikagaien segurtasuna eta subiranotasuna lortzen, hala klima aldaketaren kontra borrokatzen eta lurraldea era jasangarrian kudeatzen.

Lurzoru horiek babestea —egun nekazaritzarako erabiltzen direnak nahiz ez direnak— interes orokorrekotzat jotzen da; eta nekazaritzakoa ez den beste edozein erabilerari gailendu behar zaio (*17/2008 Legea, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa*).

Legeek nekazaritza lurrak defendatzea xedatzen dute; ez soilik balio agronomikoa dutelako, baita biodibertsitatearen eta paisaiaren euskarri eta berme direlako ere. Halaber, desertifikazio eta higadura prozesuak moteltzen edo saihesten dituzte; eta helburuen artean ezartzen dute nekazaritzako lurzoria babestea, bereziki egoera okerreanean daudenak edo hirigintzaren eraginpean daudenak.

Ildo horretan, nekazaritza-abeltzaintzako eremuak babestea oinarri duten hainbat lege ditugu; besteak beste:

- *Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak*, 97 bis artikuluan (Balio Agrologiko Handiko lurzoruen gaineko proiektuen Izapidea), eta *Nekazaritza eta*



Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legeak, 16.2. artikuluan (*Balio Agrológico Handiko lurzoruen babes berezia*) jasotzen dute, EAE-ko **Balio Agrológico Handiko lurretan** aurreikusitako edozein proiektu edo egintzari behin betiko onarpena eman baino lehen nahitaezkoa dela nekazaritza gaietan eskumena duen foru-organoak txostena egitea. Txosten horrek proiektuak edo egintzak zenbaterainoko eragina duen neurtuko du.

- *177/2014 DEKRETUA, 2014ko irailaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala onartzen duenak 61.2 artikuluan* jasotzen du, besteak beste, Balio Estrategiko Handia azpikategorian aurreikusitako proiektuen edo administrazio-baimenen kasuan, *Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako 17/2008 Legeak* 16. artikuluan ezartzen duen bezala, nekazaritza-arloko eskumena duen foru-organoak txostena egitea eskatuko dela, behin betiko onartu aurretik.
- Era berean, 177/2014 Dekretuaren 10e artikulua jasotzen du udal-plangintza, lurralde-plangintza, eta sektore-plangintza idazteko eta onartzeko izapideetan, Nekazaritza-Sektorearen Gaineko Eragina Ebaluatzeko Protokoloa (AAEP) erabiliko dela.

Txosten honek, beraz, *Nekazaritza Sektorearen Gaineko Eragina Ebaluatzeko* protokoloa aplikatuz, 3HI-028-24-P03-A Donostiako HAPO-aren aldaketa puntualak Alkolea parkeko eta Martuteneko azpiestazioei buruzkoaren ingurumen- azterketa estrategikotik eratorritako sektorearen gaineko eraginaren azterketa jasotzen du.

2.- HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORREAN AURREIKUS DAITEKEEN NEKAZARITZA SEKTOREAREN GAINEKO ERAGINA ALDI BEREKO SEKTORE-ETA LURRALDE-PLANETAN

NEKAZARITZA ETA BASOZAINZAKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA

Irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren bidez onartu zen behin betiko izaeraz, eta honako helburu nagusi hauek ditu: lurra eta, oro har, nekazaritza-sektorea eta haren bitartekoak defendatzea eta babestea, egungo landa-egoera zehaztea eta plangintza landa-irizpideetatik planteatuko duen lurralde-antolamendua bultzatzea. Beraz, funtzio bikoitza du *Nekazaritza eta Basogintzaren Lurralde Plan Sektorialak (LPS)*: Euskal landa-eremu multiaktibo eta multifuntzional baten bideragarritasuna ziurtatzera bideratutako lurralde-antolamenduaren proposamena; eta eredu hori lurralde-antolamenduaren arloko prozesu erabakitzaileetan sartzeko bide bat irekitzea.

Sektoreei dagokienez, LPSak Lurzoru Urbanizaezinean nekazaritzako eta basogintzako erabilerak arautzen ditu, eta haren antolamendu-eremuak EAE osoa hartzen du barnean, aurretik zeuden hiri-eremuak izan ezik. Azken eremu horiek dira udal-plangintza orokorrean behin betiko onartu zirenean hiri-lurzoru, lurzoru urbanizagarri edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta zeudenak.

Kanpoan geratzen dira, halaber, Naturagune Babestuak (Parke Naturalak eta Biotopo Babestuak), Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremua eta hezeguneak, Hezeguneen LPSean zehatz-mehatz ordenatuta daudenak, eta Itsasertzaren Babes Bereziko Eremuak, Itsasertzaren LPSean definituta daudenak.

Indarrean dauden Lurralde Plan Partzialek (LPP) babestutako Lurzoru Urbanizaezinari dagokienez, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren zonakatzek izaera subsidiarioa du zona horietan – LPPen nagusitasun juridikoa kontuan hartuta –, LPPak zehaztutako Balio Estrategiko



Handiko zonetan izan ezik, horietan lurraldea antolatzeko bi tresnen araudi zorrotzena nagusitzen baita.

Lurzoru urbanizaezina arautzeko oinarri gisa, LPSak arau-elementuen eta soilik ingurune fisikoaren alderdien arteko definizioa eta kontrastea egiten du, honela egituratuta:

- **Erabileren eta jardueren definizioa.**

1997ko *Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan* (LAG) proposatutako eskema abiapuntutzat hartuta, zona desberdinetan kontuan hartu beharreko erabilera eta jardueren definizio bat egiten da, eta ñabardura batzuk egiten ditu, hala nola ez kontuan hartzea Kontserbazio Erabilera (ez da erabilera bat berez, helburu bat baizik), Berotegi Erabilera Nekazaritza Erabileraren barruan txertatzea eta landa-bideak eta pistak erabilera bereizi berri gisa sartzea.

- **Antolamendu-kategoriak.**

1997ko *LAGetan* oinarrituta, zehaztaperen eta aldaketa batzuekin. *Babes Bereziko* Kategoria ez da espezifikoki mugatzen, baina gainjarritako baldintzatzaile gisa sartzen dira Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako Natura Intereseko Eremuak eta Eremuak, Natura 2000 Sarean sartutako eremuak (BGL, HBBG), Nazioarteko Garrantzia duten RAMSAR Hezegune izendatutako enklabeak, Korridore Ekologikoen Sarea, Paisaia Gutxi Alteredatua duten Eremuak eta 1997ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek ezartzen duten irizpidearen arabera Babes Bereziko ezaugarriak dituen beste edozein azalera. Horietatik abiatuta, eta LAGek adierazten duten bezala, LPPak edo udal-plangintza izango lirateke dagozkien aplikazio-eremuen barruan egokiak diren eremuak Babes Bereziko gisa definitutako lituzketenak.

LPSaren arabera, lurzoru orok nekazaritza eta basogintzarako bokazioa du edo izan dezake, neurri handiagoan edo txikiagoan; beraz, 1997ko LAGetako Erabilera Definitutako Bokaziorik Gabeko kategoria ez zaio esleitu ezekin eremuri.

1997ko LAGetako *Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabala* kategoriak bi azpikategoria ditu:

- **Balio Estrategiko Handia.** Gaitasun agrologiko handieneko lurzoruak ez ezik, modernotasun, errentagarritasun edo iraunkortasunagatik sektorearentzat estrategikotzat jotzen diren nekazaritza-ustiategietako lursailak ere barne hartzen dituzte, eta, beraz, **horiek mantentzea eta zaintzea lehentasunez kottzat jotzen da beste erabilera batzuen aurrean.**
- **Trantsizioko Landa Paisaia.** Aurreko azpikategoriakoak baino ekoizpen-ahalmen txikiagoa duten eremu landuak biltzen ditu (malda handiagoak), edo landazabaleko eremuak, belardiz eta haiekin mosaikoan dauden baso-unada txikiz estalita. Balio Estrategiko Handiko nekazaritza- eta abeltzaintza-eremuekin edo baso-eremu zabalekin kontaktuan daude berehala, eta bokazioz, bi zentzu horietako batera jotzen dute.

1997ko LAGetako *Basoa eta Mendi Larreak* kategoriak goragoko kategorian batean biltzen dira, Mendia izenekoan, eta hori, aldi berean, lau kategoriatan banatzen da:

- **Basogintza:** gaur egungo erabileragatik edo erabiltzeko bokazioagatik (arriskuak, arroen babesa, etab.) zuhaitz-estaldura mantentzeko bokazio argia duten lurrak hartzen ditu



barne, natura-interes handiko baso autoktonoak nahiz espezie aloktonoen landaketak barne. Horien artean, nabarmentzekoak dira radiata pinua, duen hedaduragatik.

- *Basoa-Mendi barbana*: zuhaitzik gabeko eremuak dira, zuhaitz arraroak edo degradatuak dituztenak (sastrakadiak, eremu karstikoak edo malda handiak, luberritutako mendi publikoak eta Arabako illekoak, etab.).
- *Larre menditarrak*: kota altuetan dauden soropil harrapari eta trinkoek osatzen dute, abeltzaintza-aprobetxamendu handia dutenak, baina sasoikoak, eta artzaintza-kultura tradizionalari lotuak, bai eta mendi-eremuak ere, belar-sastrakak garbituz edo beste metodo batzuk erabiliz larreak hobetu dituztenak edo duela gutxi ezarritako larreak.
- *Larre menditarrak-harkaitzak*: horien artean daude harkaitz-horma handiak, irtengune ia bertikalak dituztenak, euskal mendietako kareharrizko formazioen ezaugarri direnak, eta nekazaritza eta basogintza aprobetxatzea ia ezinezkoa dutenak, irisgarritasunik ez dutelako. Flora apartekoa eta bakana duen habitata da, fauna mehatxatuaren babesleku eta habia izanik.

Ingurumen Hobekuntza kategoriak eremu degradatuak biltzen ditu, lurzoru gutxikoak edo gaur egun higadura handia dutenak. Horietan, ekosistema hobetzeko eta leheneratzeko lanak egin behar dira ahalik eta lasterren, baliabidea galtzen jarraitzea saihesteko. Gaur egun dauden harrobiak ere sartzen dira, bai jardunean daudenak, bai bertan behera utzitakoak. Harrobien antolamendua gaiari buruzko legeriak arautu beharko du.

Azkenik, **Lurrazaleko Uren Babesa** kategoria EAeko ibaiek eta errekek eta dagokien babes-eremuak osatzen dute, eta EAeko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean ezartzen da.

Bestalde, **Gainjarritako baldintzatzaileak** antolamendu-kategorietan jarduera jakin batzuk garatzeko modua mugatzen dute, kasu bakoitzean aurkeztu den arrisku motaren arabera, eta ingurune fisikoko elementuen tratamendurako eta LAGetan ezarritako eremuetako jardueren erregulaziorako irizpide eta jarraibideen arabera. 1997ko LAGetatik eratorritakoak mantendu dira:

- *Naturgune Babestuak eta Urdaibaiko Biosfera Erreserba*: horien lurralde-antolamendua dagozkion Natura Baliabideen Antolamendu Planetara (BNAP) eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planetara (EKZP) lotzen da.

- *Urpean gera daitezkeen eremuak*, EAeko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean jada kontuan hartutakoak. Eremu horietara mugatzen dira kartografia eta uholde-arriskuak kategoria bakoitzean ekar ditzakeen xedapen gehigarriak.

- *Akuiferoak kutsatzeko arriskuan dauden eremuak*: lurpeko akuiferoak kargatzeko eremuak dira, baliabide horiek kutsatzeko urrakortasun-maila handia edo oso handia dutenak, Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak egindako EAeko "Akuiferoen kutsadurarekiko urrazte-arriskuaren mapa"ren irizpideen arabera.

- *Eremu higagarriak*: beren ezaugarri litologikoengatik eta erliebearengatik higadura-fenomenoak agertzeko arrisku handia dutenak.

Baldintzatzaile horiez gain, LPSk honako hau adierazten du:



- Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak; horien erregulazioa Mendiei buruzko 43/2003 Legean ezartzen da.
- Natura Intereseko Eremuak, ondoz ondoko azterlanetan eta plangintza-dokumentuetan inbentariatu eta ebaluatu direnak barne (adibidez, LAGetako Natura Intereseko Lekuen zerrenda), Ramsar Hitzarmenaren esparruan katalogatutako Nazioarteko Garrantzia duten Hezeguneak barne, eta gaur egun deklaratu dauden edo BNAPa idazteko agindua duten Naturgune Babestuak eta Urdaibaiko Biosfera Erreserba kanpo utzita, horiek aparteko baldintzatzaile batean integratzen baitira.
- Korridore Ekologikoen Sarea, Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak landutako kartografian adierazia, landaredi naturaleko orbanen arteko lotura eta komunikazio gisa balio duena, truke genetiko ahalbidetzeko.
- Gutxi eraldatutako Paisaia duten guneak, landa- edo natura-paisaiaren ordezkartza ona duten eremuek osatzen dituztenak, paisaia asaldatzen duten elementuetatik urrun daudenak, hala nola: hiri- eta industria-guneak, komunikazio-bideak, etab. Beraz, EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoan sartuta dauden guneak sartzen dira; katalogo haui Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak lantzen du.

Definizio horietatik abiatuta, **LPS**ak aplikazio orokorreko irizpide batzuk eta antolamendu-kategoria bakoitzean aplikatzeko arau espezifiko batzuk garatzen ditu.

Aplikazio orokorreko irizpideen helburua esku hartzen duten erakunde publikoak orientatzea da, eta horietako batzuek sektore-jarduera jakin bat arautzen duen arau bat hartzen dute oinarriztat. Irizpide horien artean sartzen dira Lurzoru Urbanizaezinean nekazaritzako eraikuntza berriak egiteko baldintzak, hondakin organikoen kontrola, aisialdiko baratzeak, etabar.

Arau espezifikoetan, ezarpenaren bideragarritasuna edo bideraezintasuna zehazte aldera, erabilerak eta jarduerak 1997ko LAGetan ezarritako mekanismoaren arabera arautzen dira, eta, beraz, kasuen arabera, bultzatu, onartu edo debekatutzat joko dira. Horrela, Antolamendu Kategorietan Erabilerak Arautzeko Matrizean (edo Antolamendu Matrizean), lurraldean garatzen diren erabilera potentzialei (lerroetan) aurre egiten zaie, horiek Antolamendu Kategorietan (zutabeetan) ezartzea arautzeari begira.

Oro har, lurzoruaren baliabidea modu itzulezinean hipotekatzen duten erabileretarako zuhurtzia handiena ezartzen da haren plangintzan balio sektorial edo natural handieneko kategorietan. Erabilera horiek ez dira desiragarriak categoria horietan; izan ere, kasu batzuetan debekatuta daude, eta beste batzuetan, berriz, beste aukera posible batzuk baztertu dira alde aurretik, eta nekazaritzako eta basogintzako jardueran eragindako ingurumen-inpaktua zuzentzeko neurriak ezarri dira. Balio txikiagoko kategorietan, azpiegitura- edo eraikuntza-erabilera gehienak onargarritzat jotzen dira, nahiz eta nekazaritza eta basogintza jardueraren gaineko eraginaren ebaluazioa ere agintzen den ingurumen-inpaktuaren ebaluazioen bidez. Nekazaritzako erabilerak ia categoria guztietan onartzen dira. Hala ere, kasu batzuetan ñabardurak egiten dira erabilera horiei lotutako praktika edo eraikuntza jakin batzuetarako.

Gainjarritako baldintzak dituzten eremuei dagokienez, jarraibide batzuk ematen dira, aipatzen diren arau erregulatzaileei erreferentzia egiten dietenak.



3.- ALKOLEA PARKEKO ETA MARTUTENENKO AZPIESTAZIOEI BURUZKO HAPOAREN ALDAKETA PUNTUALAREN AZTERKETA

Ekolur enpresak aurkeztutako Ingurumen dokumentu estrategikoa eta ekipo teknikoak aurkeztutako dokumentua aztertuta ondorengoak nabarmentzekoak:

- "MA.09 Martuteneko Transformazio Azpiestazioa" sortu berria da.
- Transformazio elektrikoko instalazioak trinkotuta, MA 09 eremuan, erabilera eta instalazio gehigarriak ezartzea ahalbidetuko du.
- Sustatzaileak lursailean hiru solairuko eraikin bat egitea proposatzen du, sestra gainean, 4.500 m²(t)-ko azalera eraikia duena, bulego eta beste zerbitzu batzuetarako; sestra azpian solairu bat, ibilgailuak aparkatzeko eta 1.500 m²(t)-ko biltegiak egiteko; eta azalera 1.500 m²-ko aparkalekua.
- Era berean, proiektuan sartu da Alkolea parkeko transformazio-azpiestazioko lurzatiaren zonifikazio xehatua birdoitzea. Aldaketak eduki formala baino ez du ekarriko, Aldaketa horren arabera, Alkoleako Pasabideko 11. zenbakiko etxebizitza-eraikinak hartzen duen lurzattia a.30 bizitegi-erabilerako lurzati independente gisa identifikatuko da, eta Plan Orokorrak Alkoleako Pasabideko Transformazio Azpiestazioko lurzatian -3/5/7/9 zenbakiak- sartuko du, H.00ko azpiegituren sistema orokor gisa kalifikatuta.
- **MA.09 ST Martutene HE berria**
Martuteneko Transformazio Azpiestazioari atxikitako lurzattia eta bere aldameneko lurzoruak, gaur egun lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta daudenak eta indarrean dagoen Plan Orokorrak NU.03 Lau Haizeta Natura Eremura biltzen dituenak, Hirigintza Eremu berri gisa mugatu eta identifikatzen dira MA.09 Martuteneko Transformazio Azpiestazioa. **Eremu berri hau lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzen da**, eta azpiestazioaren lursaila H.00 Zerbitzuen azpiegiturak gisa, sistema orokor mailarekin, bertako jardueraren "zerbitzu publiko" izaera kontuan hartuta.

Azpiestazioko lurzattia gaur egun Plan Orokorrean lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta dagoenez, proiektatutako esku-hartzeak aldeztu aurretik aldaketa egitea eskatzen du.

4.- NEKAZARITZA- SEKTOREAREN GAINEKO ERAGINA EBALUATZEKO PROTOKOLOA (AAEP)

Aurkeztutako aldaketa puntualak nekazaritza sektorearen gainean izan dezaken eragina ebaluatu aurretik nabarmendu behar da HAPO-aren aldaketak lursailaren sailkapena "lurzoru urbanizagarria" egokitzea proposatzen duela; beraz, ondorioztatzen du MA.09 HEa Nekazaritza eta Basogintzaren LPSaren antolamendu-eremutik kanpo geratuko litzatekeela.

Horretaz gain, afektazioa neurritzotzat har litekeela, artifiziatu litekeen lurzoru azalera handia kontuan hartuta. Eta gainera, deskribatutakoen arabera, HAPOaren aldaketaren garapenak ez duela nekazaritzarako garrantzi handiko lurzoruan eraginik izango,


Aurrekoa esanik ere, aldaketa puntualaren ondorioz sektore-afektazioa ebaluatzeko kontrastatu beharreko aldagai nagusiak zerrendatu eta ebaluatuko dira:

- ✓ Lurzoruaren antolamendu-kategoriaren arabeko afektazioa, Balio estrategikoko handiko azalera eta Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak berriaz aintzat hartuta.
- ✓ Eraginpeko ustiatuegi bideragarritasun ekonomikoaren gaineko afektazioa, eta
- ✓ Ustiatuegi lotutako eraikin eta azpiegituren gaineko afektazioa.

✓ **LURZORUAREN ANTOLAMENDU-KATEGORIAREN ARABERAKO AFEKTAZIOA, BALIO ESTRATEGIKO HANDIKO AZALERAK ETA ONURA PUBLIKOKO MENDIAK ETA MENDI BABESLEAK BERARIAZ AINTZAT HARTUTA.**

Proiektuak ez ditu Balio Estrategiko handiko azalera ezta onura publikoko mendiak eta mendi babesleak hartzen.

“Trantsiziozko Landa Paisaia” kategoriaren barruan dagoen lursaila hartzen du eremuak bere osotasunean, ortoargazkian ikusi daitekeen moduan.



✓ **ERAGINPEKO USTIATEGIEN BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOAREN GAINKO AFEKTAZIOA**

Ingurumen-dokumentu estrategikoak jasotzen du, tal honetan, proiektuak ez duela eraginik izango lehendik dagoen ustiategi baten bideragarritasunean.

✓ **USTIATEGIEI LOTUTAKO ERAIKIN ETA AZPIEGITUREN GAINKO AFEKTAZIOA.**

Azkeneko puntu honetan ere, ez da eraikin edo azpiegiturarik afektatuko. Eta paisaiaren gaineko eragina ere oso apala dela dio.

Horrenbestez, ondorioztatzen du inpaktuaren balioespina bateragarria dela.



4.- AZKEN BALORAZIOA

Kontutan hartuta, 177/2014 Dekretuaren 2. artikulua 3. atalean jasotzen duela *Lurralde Plan Sektorialaren (LPS)* antolamendu-eremua EAE osora iristen dela, aldez aurretik zeuden hiri-eremuetara izan ezik eta, aldez aurretik zeuden hiri-eremuak dokumentua behin betiko onetsi zen egunerako udal-planeamendu orokorraren arabera lurzoru urbano edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta zeudenak direla.

Ikusirik, EG.15 lursaila hiri-lurzoru gisa sailkatzen duela Donostiako HAPO-ak, eta MA.09 eremu berriko lursailari dagokionez berriz HAPOaren aldaketaren xedea HAPOaren sailkapena aldatzea dela, eta, beraz, lurzoru urbanizagarritzat sailkatzea.

Ikusirik, Ingurumen-dokumentu estrategikoak jasotako sektore-afektazioari buruzko ebaluazioa ontzat eman daitekeela; izan ere, MA 09 eremuan, gaur egun, 60ko eta 70eko hamarkadetan eraikitako transformazio elektrikoko azpiestazioko azpiegiturak daude. Aipatu azpiegitura horiek 8.740 m² inguru hartzen dituzte (eremuaren azaleraren % 45). Azpiegitura horiek egoteak eta zolatutako azalera nabarmen mugatzen dute lursailaren nekazaritzako ekoizpen-aprobetxamendua, eta, beraz, lursailaren ekialdeko belardira mugatuko lirake oraindik nolabaiteko nekazaritza-bokazioa izango luketen lursail libreak.

Hala ere, lursail libre horiek maiz moztzen direla, eta, beraz, espazio libre gisa mantentzeko baino ez dira erabiltzen, inongo nekazaritza erabilerarako bokaziorik izan gabe.

Landa Garapeneko eta Lurralde Oreako Zerbitzuak ondorioztatu du Alkolea parkeko (AU EG.15 EGIA) eta Martuteneko (AU MA BERRIA, ".09 MARTUTENE") azpiestazioei buruzkoari HAPO-aren aldaketa puntuak ez duela nekazaritza sektorearen gainean eraginik. Eremua artifizializatua izanda, gaur egun ere ez baita sektorearen erabilerarako bideratzen.

Donostia, 2024ko ekainaren 25a.

Sin.: Xabier Arruti Olazabal

Lurralde Oreak Berdeko Foru Diputatua